

Puntako atletak izango dira nazioarteko duatloian

Urdaitri Duatloi eta Triatloi elkarteak kideek jakinarazi dutenez, **apirilaren 18an** izango da Gernika-Lumoko Nazioarteko XIV. Duatloia-V. Paul Seco memoriale. Data finkoa dela adierazi dute antolatzaileek. Emakumeen lasterketa 16:00etan hasiko da eta gizonezkoena 16:30ean.

Dagoeneko puntako zenbait duatletak egun horretan Gernika-Lumon izango direla ziurtatu diote antolakuntzari. Horrela, Rob Woestembochs 2008ko duatloiko munduko txapelketaren irabazlea, Jurgen Dereere Europako txapelduna eta Bart Aernouts 2008ko munduko txapelketako hirugarren sailkatuak parte hartuko dute nazioarteko duatloian. Aipatutako hiru duatletak belgikarrak dira.

Paul Amey 2007ko munduko txapel-dunarekin batera, Raf Baug eta James Attad australiarrek ere parte hartuko dute proban. Urtero legez, Nicolas Capoferry frantziarra, Felix Martinez espainiarra eta Javier Garcia Kebi Sport taldeko madrildarra lehia ariko dira.

Emakumezkoen lasterketan ere maila handiko duatletek parte hartuko dutela iragarri du antolakuntzak. Besteak beste,



ALDABA ARTXIBOA

Catriona Morrison distantzia luzeko duatloiko munduko txapelduna eta Radka Vodickova Europako txapelduna Gernika-Lumon izango dira apirilaren 18an.

Horiekin batera Alexandra Louison frantziarrak, Agnes Kay Appers estatubatuarra eta Ana Burgos espainiarrak ere euren parte-hartzea iragarri dute. Duatleta

euskaldunei dagokienez, urtero legez Virginia Berasategi bilbotarrak eta Ainhoa Murua zarauztarrak nazioarteko duatloian parte hartuko dute.

Saritan 7.800 euro banatuko dituztela adierazi dute antolatzaileek. Euren ustez, "Gernika-Lumoko lasterketa Europako probarik onenen artean mantentzen da".

